

2017AN ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI EKINTZETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIAREN BABESEAN LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAK EMANDAKO EBAZPENARI LOTUTAKO PROIEKTUAK BIDERATZEKO OINARRIAK (2017/07/28KO EHAA).

Ibarraundi museorako langilea:

1.- Deialdiaren helburua.

Deialdi honen helburua da lehiaketa-oposizio bidez langabezian dagoen pertsona bat urte erdirako kontratatzea aldi baterako lan-erregimenean, %50eko lanaldia eta Udaleko Ibarraundi museoan lan egiteko izango da.

Lanaldiak Alkateak onartutako ordutegian eta egunetan egingo dira.

2.- Lanpostuaren betebeharrak.

Udalerriko ondareari buruzko datuak antolatu eta hala badagokio, osatu.

3- Izena emateko baldintzak.

- 1) Lanbiden (Euskal Enplegu Zerbitzuan) izena emanda egotea.
- 2) Gutxienez Goimailako Heziketa Zikloa: Turismoari, historia edo/eta arteari lotutakoak.
- 3) EGA titulua edo baliokidea izatea
- 4) Debagoienean erroldatuta egotea
- 5) Kontratua Enplegu planeko kolektiboren bateko pertsona bati egindakoak izan beharko da.

4- Eskabideak.

Eskabideak LANBIDEKO bulegoan aurkeztu beharko dira 2017ko azaroaren 16tik 2017ko azaroaren 23ra arte, edo telematikoki LANBIDEREN web gunean finkatutako epe horretan.

5- Izangaiak onartzea.

Eskatzaile guztien artetik LANBIDEK aukeratuko ditu baldintza guztiak betetzen dituztenak, eta aukeratutakoen zerrenda emango dio Udalari.

6- Epaimahai kalifikatzailea.

Lehiaketa-oposizioko epaimahai kalifikatzailea honako hauek osatuko dute:

Epaimahaiburu: Museoko teknikaria

Mahaikideak: Mankomunitateko teknikari bat
Udaleko gizarte langilea
Udaleko langileek izendatutako ordezkaria

Idazkaria: Udaleko idazkaria.

Egoki iritziz gero, proba batzuetarako gaien adituak diren pertsonen aholkularitza eskatu ahal izango du epaimahaiak.

7 Hautapen prozedura.

LEHENENGO FASEA: Aurrehautaketa

Hautaketarako ondorengo baldintzak hartuko dira kontuan, eta baldintza horiek ezinbestekoak eta baztertzailerak izango dira:

- 1) Lanbiden (Euskal Enplegu Zerbitzuan) izena emanda egotea.
- 2) Gutxienez Goimailako Heziketa Zikloa: Turismoari, historia edo/eta arteari lotutakoak.
- 3) EGA titulua edo baliokidea izatea
- 4) Debagoiengan erroldatuta egotea
- 5) Kontratua Enplegu planeko kolektiboren bateko pertsona bati egindakoak izan beharko da.

BIGARREN FASEA: OPOSIZIOA

Oposizio aldia honako hauek osatuko dute:

- Euskara azterketa: Baztertzailerak. 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko agiririk ez dutenek euskara azterketa egin ahal izango dute. Hori gainditzeak ez du inolaz ere esan nahiko titulu ofiziala eskuratu denik.
- Ariketa praktikoa: Derrigorrezkoa eta baztertzailerak. Lanpostuaren funtzioekin lotutako eta egin beharreko lanekin zerikusia duten ariketa idatziak egin beharko dira. Proba hau gehienez ere 50 punturekin baloratuko da, eta gutxienez 25 puntu lortu beharko dira.
- Elkarrizketa: Derrigorrezkoa eta ez baztertzailerak. Izendagaien lanpostuarekiko egokitasuna neurtzeko. Proba hau gehienez 10 punturekin baloratuko da.

Epaimahai kalifikatzaileak fase honetan aurreikusitako proben ordena aldatu ahal izango du, eta egun berean hainbat proba egitea ere erabaki dezake. Kasu horretan, proba bakoitza ebaluatzeko aurrekoa gaindituta izan beharko da.

Azterketa egiteko jarritako leku, egun eta orduan agertzen ez dena, nahiz eta ezinbesteko arrazoiengatik izan, hautaketa prozesutik kanpo geldituko da behin betiko.

8- Epaimahaiaren proposamena.

Izangai bakoitzaren azken kalifikazioa lehengo eta bigarren fasean lortutako puntuen baturatik ateratakoa izango da, eta honek behin betiko puntuazio hurrenkera erabakiko du.

Berdinketa egonez gero, honako hauek izango dute lehentasuna:

- 1.- Langabezia denbora gehien daramatenak.
- 2.- Aurreko irizpidearekin ez bada berdinketa apurtzen, lehentasuna izango du prestazioetatik edo langabezia-sorospenetik diru gutxien jasotzeko duenak.

Epaimahaiak ikusiko balu izangai batek berak ere ez duela beharrezko gutxieneko baldintzak betetzen lanpostuko funtzioak behar bezala betetzeko, kontratazioa bete gabe gelditu daiteke.

Eskatutako baldintza guztiak bete eta kontratatu gabe gelditzen diren izangaiak itxaron zerrendan geldituko dira, horrela, deialdi honetan hasiera batean kontratatutako pertsonen artean baxarik egonez gero, baja horiek bete ahal izateko.

9- Gorabeherak.

Epaimahai gaiturik dago sor litezkeen zalantzak argitzeko eta oinarri hauetan aurreikusitako gabeko guztian lehiaketaren jardura onerako beharrezko erabakiak hartzeko.

10 Datu pertsonalak babestea.

Honako arau hauek xedatutako tratamendua emango zaie hautagaiek hautaketa-prozesuan emandako datu pertsonalei: Datu pertsonalak babestekoa den 15/1999 Lege Organikoa; Datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuak aplikatu beharreko segurtasun-neurriak buruzko Erregelamendua onartzen duen 994/1999 Errege Dekretua; 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa; eta arau horien garapenerako xedapenak.

Hautatze-prozesuan bildutako datu pertsonalak «Langileen hautaketa» izeneko fitxategi automatizatuan jasoko dira. Hautaketa-prozesuetan hautagaiek erakutsitako jarrera profesionala neurtzea da fitxategi horren xedea, eta Eskoriatzako Udala izango da datu pertsonalen hartzailea eta fitxategiaren arduraduna. Fitxategiko datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko edo inori ematen ez uzteko eskubidea erabili nahi izanez gero, Eskoriatzako Udalera jo beharko da.

Hautagaiek hautaketa-prozesua kudeatzeko, datu pertsonalak erabiltzeko eta haien Interneten jartzeko baimena eman beharko dute.

Hautaketa- prozesuan zehar emandako datuak beste administrazio edo erakunde batzuei lagatzeko aukera izango da, haien unean-unean langile-premiei erantzuteko.

Datu pertsonalak erabiltzeko, segurtasun-neurriak buruzko Erregelamendua araututako neurriak beteko dira.